



**atez•ate**  
Z a l d i b i a n

**atez-ateko  
hondakinen  
bilketa  
herrian**





Herritarrekin batera Zaldibiako atez ateko bilketa diseinatzeko 16 bilera egin ostean 620 lagunekin, hauxe da herritarrekin batera erabaki den behin betiko modeloa:

Hondakinak gaika sailkatzeko, etxe bizitza bakoitzari dagozkion kuboak eta poltsa konpostagarriak doan banatuko ditu Mankomunitateak.

**Aurreko sistemarekin alderatuta, diferentzia bakarra da: orain arte sailkatutakoa edukiontzi komunitarioetan botatzen zen; hemendik aurrera berriz, asteko egutegi baten arabera, kubo indibidualetan aterako da.**

**Zaldibiaren kasuan, gainera, gai organikoa ere berezita jasoko da hemendik aurrera eta konposta egingo da horrekin. Orain arte errefusarekin batera jasotzen zen eta zabortegira eramaten zen.**

Hondakinak ondo bereziti ahal izateko, gai bakoitzera zein hondakin bota behar den adierazten duen gida ere banatuko da. Hauexek dira berezita jasoko diren gaiak:

## Gai organikoa

Nagusiki janari hondarrak dira, bai janari gordinarenak eta baita prestatu ondorengoarenak ere.

•**Kubo aireztatua:** kubo hau etxe barrurako da eta poltsa konpostagarriekin batera erabiltzen da.

•**Poltsa konpostagarriak:** hauek erabiliz gero hondakinak aireztatuta daude eta usainik ez da sortzen. Lurruna iragaten uzten dute baina likidoa bertan gelditzen da, iragazkaitza baita.

Konpostagarriak ere badira; beraz organikoarekin batera konposta bihurtuko da.

•**Organikoa kalera ateratzeko kubo itxia:** hau da kalera atera eta bilketa zerbitzuekin adostutako puntuan utzi beharreko kuboak.



## Papera eta kartoia

Egunkariak, aldizkariak, paperak, sobreak edo antzekoak, edota kartoizko kaxak eta ontziak.

Kubo indibidualetan edota komunitarioetan aterako da papera eta kartoia, etxebizitza bakoitzeko bizilagunek erabaki bezala.



## Plastikozko, metalezko edo *brik* erako ontzi arinak

Edarien, xaboiaren edota garbiketarako produktuen ontzi guztiak, bilgarriak, latak, kontserben ontziak eta *brikak*.



## Errefusa

Birziklatzeko ahal den guztia sailkatu ondoren geratzen dena ontzi honetan sartuko da. Gai oso txikia izan ohi da, eta norbere higienarako produktuek nahiz osasun produktuek, paper zikinak eta aldikako hondakinek osatzen dute bereziki.



## Edukiontzi komunitarioak

Kaleetan dauden tokian mantenduko dira ondoko gaietarako edukiontzi komunitarioak:

- Beira
- Erabilitako arropa eta oihalak
- Pilak eta telefono mugikorak
- Sukaldeko olioak



## Trasteen bilketa

Bolumen handiko trasteen bilketa orain arte bezala mantenduko da eta hilabete bakoitzeko bigarren eta laugarren asteartean egingo da bilketa. Trasteak etxe aurrean edo bilketa zerbitzuarekin adostutako puntuan utzi beharko dira.



## Pix-oihalen, konpresen eta antzekoen bilketa berezia

Egunero atera ahalko dira beste poltsa berezi batean sartuta eta egun horretan tokatzen den gaiari dagokion kuboaren barnean.

## Garbiguneak

Orain arte bezala jarraituko dute. Edozein unetan erabil daitezke etxeko hondakinak edota bolumen handikoak uzteko.

## Noiz eta nola atera kuboak

Kuboak Mankomunitatearekin adostutako puntuetara aterako dira. Bizilagun gehienek, zintzilikariorik gabe, lurrean utziko dituzte edukiontziak. Bizitza askoko etxeetan aldiz, paretako zintzilikarioak erabiliko dira.

Kuboek etxebizitza bakoitzeko kodigo eta zenbaki partikular bat izango dute, eta hala, hainbat datu ezagutu ahalko dira: maiztasuna, bilketa ordua, altxaldi kopurua eta beste hainbat xehetasun.

Datu horiek zerbitzua hobetzen lagunduko dute, eta etorkizunean baita bakoitzak sortzen duen zaborraren araberako tarifakazioa jartzeko aukera eman ere.



## Ordutegia

Egun bakoitzeko gaia 20:00etatik 23:00etara bitartean atera ahalko da.

## Egutegia

Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
organikoa	ontzi arinak	papera eta kartoia	organikoa	ontzi arinak	organikoa	errefusa

## Landa eremurako bilketa guneak

Landa eremuko bizilagunentzat eta erabiltzaile puntualentzat bi bilketa gune jarriko dira:

- Bilore
- Tejeria

Erabiltzaileek identifikazio-txartel bat izango dute bilketa gune horietara sartzeko, gainontzeko bizilagunek berriz, larrialdi kasuetan erabili ahalko dute Udalean txartela eskatuta.

## Informazio bulegoa

Atez atekoaren inguruko informazio bulegoa **Zaldibiako Kultur Etxean** dago eta **asteartetan** nahiz **ostegunetan** dago irekita 10:00etatik 12:30etara eta 18:00etatik 20:30etara. Ordutegi horren barruan **Lide Aristegi** hezitzailea bertan egongo da eta herritarrek edozein zalantza argitzeko aukera izango dute. Horrez gain, herritarren eskura jarri da [zaldibia@sasieta.org](mailto:zaldibia@sasieta.org) helbide elektronikoa eta 671 42 33 87 telefono zenbakia ere edozein kontsulta egiteko.

